

# FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure funtsezko jarduera plataforma edo sareko jarduerak dira, guk zerbitzu bat eskaitzen dugulako aplikazio baten bitartez. Kasu honetan lehiakide asko dauzkagu, hau da, zerbitzu edo produktu bera eskaintzen duten pertsonak edo enpresak. Adibidez fotocasa, squid, NeoAttack, Hello Media Group eta App2u. Baina gure aplikazioa osatuagoa dago, beste aplikazioen zerbitzu guztiak batzen dituelako, lehiakideen aplikazioengatik desberdintzen da.

Gainera, enpresaren kudeaketa eta adiministrazioa ezinbestekoak dira gure proiektua funtzionatzeko, horregatik kide bakoitzak zeregin bat dauka. Alde batetik, aplikazioaren itxura zaindu behar dugu, irudi dotoreagoa emateko eta horrela kontsumitzaileak erakartzeko, horretarako gure kideetako bat aplikazioaren dinesuaz arduratuko da. Beste norbaitek kontu legalak eta marketina eramango ditu, gero fakturak eta kontratuak norbaitek egin behar ditu, eta bukatzeko batek bezeroekin harremanak gainbegiratu behar ditu.